

Adur Ezenarro

Ordiziako
alkategaia

Candidato
a la alcaldía de
Ordizia

ehbildu

**Maite
duzun
Ordizia**

EGINGO DUGU.

Maite duzun Ordizia

Pertsonak, herria eta ingurumena zaintzen dituen Ordizia eraikitzen ari gara



EGINGO DUGU.

Iragan legegintzaldian ezegonkortasunari aurre egin, eta mugarri izango den 2030erako ezarritako helburuak lortzeko plangintza finkatu dugu. Orain, ekin-tzak gauzaten jarraituko dugu, ordiziar guztiok geure bizi proiektua, elkar hezten eta zaintzen duen komunitate, euskaldun, inklusibo, eta jasangarrian, baldintza duintan eta aukera berdintasunean garatzeko baliabideak izan ditzagun.

Aukera berdintasuna zerbitzu publikoetatik hasten da, eta diru-sarreraren araberako tasa eta prezio publikoak ezarriko ditugu. Adin edo genero arrakalak gaindituz, feminismoetik, Jabekuntza Eskolatik Emakumeen Etxera igaroko gara.

Haurtzarotik zahartzarora, Ordizian bizi eta zahartu nahi dugu, etxean, edo etxean bezala. Horretarako zaintza komunitario sareak eratuko ditugu.

Herri Hezitzailea gara, euskalduna, anitza eta harrera herria ere bai. Harrera Planetik eta Hiri Hezitzailean oinarrituta, Ordizian bizi garenok osatzen dugun komunitate partehartzailea indartuko dugu.

Bizi-kalitatearen oinarri diren etxebizitzak eta lana bermatzeko, babes ofizialeko alokairuko etxebizitzak, Enplegu Plana eta jarduera ekonomiko berriak sustatuko ditugu.

Plan Orokor berria garatuko dugu, auzoen eta oinezkoen Ordizia jasangarria erdigunean jarrita. Guztion artean, guztiontzako Ordizia atsegin, eroso eta garbia eraikiz.

Estamos construyendo una Ordizia que cuida de las personas, del pueblo y del medio ambiente

La pasada legislatura haciendo frente a la incertidumbre, establecimos la planificación para conseguir los objetivos para el 2030. Ahora, seguiremos ejecutando acciones para que todas las personas de Ordizia podamos desarrollar nuestro proyecto de vida, en condiciones dignas e igualdad de oportunidades, formando parte de una comunidad euskaldun, inclusiva, sostenible, y que se educa y cuida entre sí.

Igualdad de oportunidades desde unos servicios públicos eficientes, donde estableceremos tasas y precios públicos proporcionales a los ingresos familiares.

Superando barreras generacionales, desde el feminismo, impulsaremos la evolución de la Escuela de Empoderamiento hacia la Casa de la Mujer.

Desde la infancia hasta la tercera edad, queremos vivir y envejecer en Ordizia, en casa, o como en casa, para lo que promoveremos redes de cuidado comunitarios.

Somos una localidad educadora, euskaldun, diversa, y de acogida. A través del Plan de Acogida fortaleceremos de forma participativa la comunidad que formamos todas la personas que vivimos en Ordizia. Para garantizar vivienda y empleo, claves para lograr calidad de vida, impulsaremos viviendas de protección de alquiler, un Plan de Empleo, y nuevas áreas para actividades económicas.

Redactaremos el nuevo Plan General, con los barrios y la movilidad peatonal como ejes. Para construir entre todas y todos, una Ordizia agradable, cómoda y limpia.

Maite duzun Ordizia



Gure taldea

Nuestro equipo

🐦 @EHBilduOrdizia 📘 Ordiziako EH Bildu ✉ ordiziakoehbildu@gmail.com 📷 @ordiziakoehbildu



- 1 Adur Ezenarro Agirre
- 2 Maitane Alvarez Garciandia
- 3 Jon Ander Caballero Zubelzu
- 4 Ainhoa Jimenez Goñi
- 5 Itsaso Muñoz Rodriguez
- 6 Manex Berzosa Irastorza
- 7 Marta Ortega Echeverria
- 8 Ugaitz Garmendia Saldias
- 9 Jesus Mari Lariz Orbezabal
- 10 Aintzane Perez Urkia
- 11 Beñat Azurmendi Senar
- 12 Leire Luengo Perales
- 13 Joxi Azurmendi Altuna
- 14 Mariaje Arriaga Arruabarrena
- 15 Adur Mujika Mujika
- 16 Ana Navarro Lopez
- 17 Imanol Urrestarazu Garmendia
- 18 Edurne Saez Soto
- 19 Iñaki Aizpuru Uriarte "Zapa"
- 20 Agus Zinkunegi Urdapileta

Duela lau urte hasitako proiektuari jarraitkortasuna ematen dioten pertsonak, eta ilusioz beterik bidera gehitzen zaizkigun aurpegi berriek osatzen dute gure lan taldea. Eskarmentu handiko pertsona anitzak, adituak eta arituak, talde lanean aritzean, batu baino, biderkatzea lortzen dutenak. Maite dugun Ordizia eraikitzeko proiektua, kolektiboa delako eta herriarekiko maitasunak mugirarazten gaituelako.

Nuestro equipo está formado por personas que continúan el proyecto iniciado hace cuatro años, y caras nuevas que se unen ilusionadas a nuestro camino. Personas profesionales, expertas y experimentadas, diversas, que, al trabajar en equipo, más que sumar, multiplican. Porque construir la Ordizia que amamos, es ante todo, un proyecto colectivo, y porque lo que nos mueve, es el amor por nuestro pueblo.

Denontzat irisgarria den Ordizia accesible para todas las personas

ORDIZIA HERRI ALDAPATSUA IZANIK, HERRITAR GUZTIENTZAT IRISGARRIA IZAN DADIN IGOGAILUAK JARTZEA EZINBESTEKOA DA. HORRETARAKO, HERRI OSOA AZTERTZEN DUEN IRISGARRITASUN PLANA BURUTU DUGU LEGEGINTZALDI HONETAN, ETA ORAIN EGITASMOAK MARTXAN JARRIKO DITUGU, ERAIKIN PUBLIKOETAN ETA HERRIAN.

ORDIZIA ES UNA LOCALIDAD CON MUCHAS PENDIENTES QUE NECESITAN ASCENSORES PARA GARANTIZAR LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL. EL PLAN DE ACCESIBILIDAD QUE HEMOS REALIZADO EN ESTA LEGISLATURA, ANALIZA TODO EL MUNICIPIO Y PROPONE ACCIONES QUE AHORA SE EJECUTARÁN, TANTO EN EDIFICIOS PÚBLICOS COMO EN EL PUEBLO.

IGOGAILUAK. Legegintzaldi honetan Majori, eta Barrena irisgarri bilakatu dira igogailu berriei esker, eta Zuhaitzin, bigarren igogailua jarri da. Hurrengoan, Jakes, Dorrea eta Oiangun jarriko dira.

Herri mailan, Altamira eta Tximista lotzeko Mallutzetik abiatu ordez, igogailua Tximistatik bertatik egiteko azterketa martxan dago, eta pasarela berria trenbidearen eta autobiairen gainetik igaroko da. Gudarien Etorbidea 6 lursaila eskuratzeko jabeekin negoziaketak martxan daude. Orian ibaiaren ingurutik herrigunera igotzeko hiru igogailu aukera aztertzen ari gara: Domingo Unanue plazatik (Herri Antzokitik) Barrena parketik, edo Bekoetxeke aparkalekutik.


San Jose egoitza, Joaquin Ibarbia, Garagartza plaza eta Antselmoren baratza lotuko dituen igogailua posible egiteko hirigintza aldaketak ahalbidetuko ditugu.

ASCENSORES. En la pasada legislatura Majori y Barrena se han convertido accesibles, y en Zuhaitzi se ha instalado el segundo ascensor. En la siguiente, se pondrán en marcha los de Jakes, Dorrea y Oiangu.

En cuanto a los ascensores urbanos, el ascensor hacia Altamira partirá directamente desde Tximista, pasando por encima del ferrocarril y la autovía. El análisis de viabilidad ya se está realizando y se está negociando la adquisición de la propiedad de Gudarien Etorbidea nº6.

Para poder salvar el desnivel entre el casco y la zona baja del río Oria estamos analizando tres opciones: desde la plaza Domingo Unanue, desde el parque Barrena y desde el parking de Bekoetxe.

Promoveremos los cambios urbanísticos para hacer posible el ascensor que una la residencia San Jose, Joaquin Ibarbia, Garagartza y la huerta de Anselmo.



▲ Tximista Altamirarekin lotuko duen igogailua. El ascensor que unirá Tximista con Altamira.

HIRIGINTZA. PLAN OROKOR BERRIA

Plan Orokor berria egiterakoan 8/80 (haur eta adinekoentzat egokia) herria lortzea izango da helburua, oinezkoak lehenetsiz eta auzoen arteko loturak erraztuz. Hirigune historikoaren oinezko loturak hobetuko ditugu, Legazpi kaletik Garagartzara, eta kale Nagusitik Foruen Pasealekura. Bidegorri sarea osatuko dugu: San Joan-Tximista eta Maribaratza-Beasain loturak burutuz.


URBANISMO. PLAN GENERAL

En la elaboración del nuevo Plan General el objetivo debe ser conseguir una localidad 8/80, donde la movilidad peatonal sea prioritaria, y se faciliten las conexiones entre barrios. Mejoraremos las conexiones peatonales del casco histórico hacia Garagartzara y Foruen pasealekua. Completaremos la red de bidegorris local ejecutando los enlaces San Juan-Tximista y Maribaratza-Beasain.



▲ Egileak Donostiako Arkitektura Eskolako ikasleak: Saray Hernandez Hermoso · Mikel Idiakez Portillo · Jiang Montejo Garay · Alida Fichera

Ordizia, beti erreferente



**4 milioi euro azoka,
merkataritza eta turismoa
suspertzeko**


Europako Next laguntzak erabiliko ditugu Ordiziaren erreferentzialtasuna indartzeko. Azoka eta merkataritza suspertzeko, plaza eraberrituko dugu, xafla fotoboltai-koak jarriko ditugu, eta itxitura mugikorrek barnealdea babestuta geratuko da. Herrian bertan edo azokan erosketak digitalak egiteko aukerak eskaini, eta erosketak horiek jasotzeko takila adimendunak jarriko ditugu.

Turismoan, Oiangu aterpetxea berreskuratu, eta golfeko eraikina balio anitzeko espazio bilakatuko dugu. D'elikatuzen Goierriko Turismo Bulegoa indartu, eta azokaren interpretazio gunea ezarriko da, azoka, baserria eta eskualdearen lotura bezala azalduz. Gaztandegi berriak, ekoizle berriei aukerak eskainiko dizkie gaztaintzan hasteko eta prozesu osoa ikusteko aukera emango die bisitariei.



**4 millones de euros para
revitalizar el mercado,
comercio y turismo**

Emplearemos las ayudas europeas para potenciar Ordizia como referente. Para revitalizar el mercado y el comercio, renovaremos la propia Plaza, e instalaremos paneles fotovoltaicos y cierres móviles que protejan su interior. Ofreceremos opciones de compra digital en el comercio local y el mercado, e instalaremos taquillas inteligentes donde poder recoger esas compras. En turismo, recuperaremos el albergue de Oiangu y el edificio del golf se convertirá en un espacio polivalente. En D'elikatuz reforzaremos la Oficina de Turismo del Goierri, y crearemos el centro de interpretación del mercado, que simboliza la unión entre el caserío y la comarca. La nueva quesería servirá para que nuevos productores puedan empezar a elaborar queso y permitirá que las personas que nos visitan puedan observar todo el proceso.



▲ **Urdaneta ikastetxea.** Colegio Urdaneta

Azpiegituren hobekuntza: Urdaneta eta Majori-Altamira

Urdaneta eskola eraberritzeko proiektua amaitzen ari da, eraikinari azal isolatzaile berri bat jarri, euren artean estalki batekin lotu eta energia berriztagarriak txertatzeko. Majoriko igerilekuak modu bideragarrian berritzeko proiektua abian da.

Mejora de infraestructuras: Urdaneta y Majori-Altamira

El proyecto para renovar la escuela Urdaneta contempla una nueva envolvente aislante, unir los edificios con una nueva cubierta e integrar energías renovables. El proyecto de una reforma viable de las piscinas de Majori está en marcha.



Proiektu jasangarriak: energia berriztagarriak eta berdeguneak


Plaza, Urdaneta, Majori eta Oiangun panel fotoboltaikoak instalatzeko proiektuak gauzatzen hasi gara eta energia komunitate kooperatiboak sustatuko ditugu herritarrentzat. Basoa berreskuratzeko lur erosketak burutuko ditugu.



Proyectos sostenibles: energías renovables y zonas verdes

Estamos ejecutando los proyectos de instalación de paneles fotovoltaicos en la Plaza, Urdaneta, Majori y Oiangun y promoveremos comunidades energéticas cooperativas para la ciudadanía. Realizaremos compras públicas para preservar el bosque.

Kulturaren triangelua: Barrena-Dorrea-Herri Antzokia



Ordiziako kultur-eragileekin adostutako bide orria gauzatzen

Herriko kultur-eragileekin adostu da kulturaren triangelua osatuko duten hiru eraikinetan kultur jarduerak nola banatuko diren. Barrena: liburutegitik mediatekara, erakusketa eta hitzaldiak, eta estalkipean eragileen bulegoak. Dorrea: musika eskola, banda eta abesbatzak, eta arte plastikoak. Herri Antzokia: zine-antzokia eraberritu, kafe-antzoki berria Domingo Unanue plazara irekia, eta arte eszenikoen entsegurako espazioak erdiko solairuan. Orain proiektuak burutu, Herri Antzokia babesteko eskaera egin, eta diru-laguntzak eskatuko ditugu egitasmoak gauzatzen joateko. Kultur-eragileen herriko programa kudeatzeko bide berriak jorratuko ditugu. Ordiziako kultura sortzeko, euskal kulturaren oinarritu eta herriko aniztasunetik, bertatik bertara, eta herriko auzoetara hedatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Materializando la hoja de ruta consensuada con los agentes culturales de Ordizia

Se ha consensuado con los agentes culturales cómo repartir las actividades entre los tres edificios que forman el triángulo de la cultura. Barrena: evolución de la biblioteca a mediateca; exposiciones, conferencias y espacios de reunión para grupos en el bajo-cubierta. Dorrea: escuela de música, banda y corales, y artes plásticas. Herri Antzokia: nuevo espacio (kafe-antzoki) abierto a la plaza Domingo Unanue, y salas de ensayo para artes escénicas. Ahora realizaremos los proyectos, solicitaremos la protección del Herri Antzokia y pediremos ayudas para ir ejecutando los proyectos. Abriremos nuevas vías para gestionar el programa cultural junto con los agentes locales. Asumimos el compromiso de promover la creación cultural local, desde el euskera y la diversidad, llevando la actividad cultural a los barrios.



Zaintza komunitarioa saretzen

Etxeko arreta, eguneko arreta zentroa, eguneko zentroa, egoitza, erakunde publikoak, zerbitzu pribatuak, erabiltzaileak, langileak, Ordiziako zaintza ekosistema komunitarioa osatzeko eragile guztiaren parte-hartze prozesua zabalduko dugu.



Redes de cuidado comunitario

Asistencia domiciliaria, centro de día y atención diurna, residencia, instituciones públicas, servicios privados, trabajadoras, usuarios/os, impulsaremos un proceso entre todos los agentes para crear un ecosistema de cuidados comunitarios local.



Babes ofizialeko alokairurako 110 etxebizitza San Juanen

Udalarenak diren San Joaneko 3 lursail Eusko Jaurlaritzari doan lagako dizkiogu bertan gutxienez alokairuko babes ofizialeko 110 etxebizitza eraikitzeko. Gazteentzat alokairurako laguntzak eman, eta lokalatan babes ofizialeko etxebizitzak sortzeko aukerak bideratuko ditugu.

110 viviendas de protección oficial de alquiler en San Juan

Cederemos gratuitamente al Gobierno Vasco 3 parcelas de propiedad municipal en San Juan para que construya al menos 110 viviendas protegidas de alquiler. Otorgaremos ayudas para el alquiler para las y los jóvenes y analizaremos las posibilidades para crear viviendas protegidas en locales.



Goierriin ere industria politika eraginkorra

Una politica industrial eficiente en el Goierri

EKONOMIA ETENGABEKO
TERTZIARIZAZIO PROZESUAN
SARTUTA DAGOEN HONETAN,
EZINBESTEKOA DA GOIERRIRI
ONGIZATEA BERMATU DION
INDUSTRIA (BER)INDARTZEA.
HORRETARAKO, ENPRESA
SAREA SENDOTZEN SEGI BEHAR
DUGU, SEKTORE BERRITZAILEAK
BULTZATUZ ETA TRAKZIO EFEKTUA
DUTEN
ENPRESA HANDIEK ESQUALDEAN
IRAUNGO DUTELA BERMATUZ

ESTANDO LA ECONOMÍA EN
UN CONSTANTE PROCESO
DE TERCIALIZACIÓN, ES
IMPRECINDIBLE REFORZAR LA
INDUSTRIA QUE HA PROVISTO DE
BIENESTAR AL GOIERRI.
PARA ELLO, DEBEMOS CONTINUAR
FORTALECIENDO EL TEJIDO
EMPRESARIAL, ATRAYENDO
A SECTORES INNOVADORES Y
ASEGURÁNDONOS DE QUE LAS
GRANDES EMPRESAS TRACTORAS
CONTINÚAN AQUÍ.

Gure industria-politikaren helburua da aberastasuna sortzea, egoki banatzeko

Europak munduko ekonomian eragina berreskuratzeko abiatutako bidetik, Goierri poloak hezkuntza, formazioa eta ikerketa koordinatu eta gidatzen jarraitu behar du. Aldi berean, erakunde publikoen interbentzioa handitu behar da, industria-sektorea lehenetsi, gainerakoak ahaztu gabe, eta I+G+B ahalegina handitu.

Beraz, Goiekiren eta Goierri Valleyren bidez Goierri politikari industrial ekintzailea egin beharra dugu; beste herri erakundeekin, bultzatzaile rola har dezatela. Horrela lortuko baita aberastasuna sortzen iraunkorrak izatea, hura egoki banatzea, kalitateko enpleguari eustea, balio erantsi handiagoko ekoizpen-ehunean kokatzea eta industria eramatea ekonomia karbonogabetu eta zirkularerantz.

Goiekik kluster egiturak ebaluatu eta hausnartu behar ditu, batik bat, haien efektibitatea, eragina eta efikazia; enpresen errotzea indartu behar du; Erkidegoko industria politiketan parte hartu behar du; eskualdeko enpresak kudeaketa aurreratura bideratu behar ditu, langileen parte hartzea bermatuz; berrikuntza politikak bultzatu behar ditu (teknologian ez ezik, marketinean, merkaturatzean, diseinuan, antolakuntzan...).

El objetivo de nuestra política industrial es crear riqueza, para distribuirla equitativamente

Siguiendo el camino emprendido por Europa para recuperar su influencia en la economía mundial, el polo Goierri debe continuar coordinando y dirigiendo la educación, la formación y la investigación. Así mismo, se debe aumentar la intervención de las instituciones públicas, priorizar el sector industrial, sin olvidar el resto de los sectores, y aumentar la inversión en I+D+I.

Por lo tanto, abogamos por una política industrial emprendedora en el Goierri, a través de Goieki y de Goierri Valley; que asuma roles impulsores en la industria; de manera que se asegure la sostenibilidad en la creación de riqueza, su reparto más equitativo, la generación y mantenimiento de empleo de calidad, el posicionamiento del tejido productivo en actividades de mayor valor añadido, y la transformación industrial hacia una economía descarbonizada y circular.

Goieki debe reflexionar y evaluar las políticas y estructuras clúster, sobre todo en relación con su efectividad, impacto y eficiencia; debe fortalecer el arraigo de las empresas; debe participar en las políticas industriales de la Comunidad; orientar a las empresas locales hacia la gestión avanzada, garantizando la participación de los y las trabajadoras; debe impulsar las políticas de innovación (tanto en tecnología como en marketing, comercialización, diseño, organización...).



Energia Erkidegoen Sustatzailea

Eusko Jaurlaritzari dagokio EAE mailako erabakiak hartzea, hala nola, E(B)EE birmoldatzea, Energiaren Euskal Erakundearen Berriztagarrien B txertatzea nahiz merkaturatzaile publikoa sortzea. Eskualde mailara etorrira, aitzindaritza Goiekiri dagokio.

Eskualde mailan saretutako energia komunitateak sortzeak du lehentasuna. Horretarako, Goiekik pertsona bat kontratatzea proposatzen dugu. Herri bakoitzean komunitate bat antolatzea bultzatuko du, eraginkortasuna bilatuz: plaka fotovoltaikoak instalatu, mugikortasunean hobekuntzak egin, kontsumoa murriztu...

Promotor o promotora de Comunidades Energéticas

Corresponde al Gobierno Vasco adoptar medidas a nivel autonómico, tales como remodelar EVE(R), insertando la R de renovables en el Ente Vasco de Energía, crear una comercializadora pública. A nivel comarcal corresponde a Goieki el liderazgo.

A este nivel, la prioridad consiste en crear comunidades energéticas coordinadas a nivel comarcal. Proponemos que Goieki contrate a una persona. Su cometido sería fomentar la formación de una comunidad en cada municipio, buscando la efectividad: instalar placas FV, promover mejoras en movilidad, reducir el consumo...



Goierriago izango gara

Garrantzitsua deritzogu herrien arteko berdintasunari: nork bere nortasunari eutsi, baina herritarrei aukera berdinak eskaini ahal izateari. Lortuko badugu, baliabideak partekatu behar ditugu.

Baditugu partekatzen ditugun zerbitzuak eskualdean, eta horietan sakontzen jarraituko dugu: osasunean, kirolean, hondakinen kudeaketan, ur-zerbitzuetan, mugikortasunean, azoketan... Horien esperientzia aberasgarriak oinarri, beste hainbat alorri helduko diegu legealdi honetan: emakumeen etxea, zaintza-kooperatiba(k), biziklet(a elektriko)en alokairua, kultur programazioa koordinatu...

**Maite
duzun
Goierri**

Seremos más Goierri

Consideramos muy importante la igualdad entre los pueblos: que cada cual mantenga su propia personalidad, pero que todos puedan ofrecer las mismas oportunidades a sus vecinos y vecinas. La forma de conseguirlo es compartir los recursos. Hay servicios que ya compartimos, y seguiremos mejorándolos: salud, deporte, gestión de residuos, servicio de agua, movilidad, ferias... Basándonos en estas experiencias enriquecedoras, abordaremos nuevos temas esta legislatura: casa de mujeres, cooperativa(s) de cuidados, alquiler bicicletas (eléctricas), coordinación de la programación cultural...

Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



**Maddalen
Iriarte
Okiñena**

Gipuzkoako
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidata a
Diputada General
de Gipuzkoa

*Aprovechemos todas
las posibilidades que
tiene Gipuzkoa, para
que nadie se quede
atrás.*

■

Mejorar para avanzar

ehbildu

🐦 @MaddalenIriarte

📘 Maddalen Iriarte Okiñena

📍 maddaleniriarteokinenena

🌐 ehbildu.eus

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bermatuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.